

Spivak, edo agindupekoaren ahotsa

Gayatri Chakravorty Spivak gaur egungo pentsamenduan eragin handiena duen teoriarrietako bat dela uste da. 1942an Kalkutan jaioa, Estatu Batuetara joan zen 60ko hamarkadaren erdian, Literatura Konparatuan doktoretza egiteko. Geroztik, bere ibilbide akademiko sendoak gaur egun dauden ahots kritiko ezagunenetako bat bihurtu du. Interes eta eragin sorta handi bat da haren lanaren ezaugarri, besteak beste dekonstrukzioa, feminismoa, psikoanalisi eta pedagogia, nahiz eta azterketa postkolonialen esparruan agertu haren eragin nabarmenena. Spivaken lanari heterogeneo eta fragmentario esan izan zaio. Heterogeneo bai haren interesetan, bai berez desberdina eta homogeneizatu ezina den errealitate postkolonial baten defentsan. Fragmentarioa, haren lanak, dekonstrukzioaren eta psikoanaliaren zordun, aurre egiten diolako irudikapen total eta totalizatzaile baten aukerari.

Testu hau, aurrez, Zehar 59 zenbakian argitaratu zen, 2006an.

* **Neus Carbonell** doktorea da Literatura Konparatuan Indiana Unibertsitatean (AEB). *Lectora*. *Revista de Mujeres y Textualidad* aldizkariaren kofundatzailea izan zen. Liburuak zein artikuluak argitaratu ditu aldizkari espezializatuetan literatura kritikaz, literatura konparatuaz, literatura teoriak eta psikoanalisiaz. Azken liburua du *La dona que no existeix. De la Il·lustració a la Globalització* (Eumo, 2003).

Lan heterogeneo eta fragmentarioa

Estatu Batuetan bizi den egile hindu honentzat, subjektu postkoloniala era askotan da heterogeneoa, baina edonola ere, generoak zeharkatutako kategoria da hau. Izan ere, hona haren karrera osoan behin eta berriz agertzen den auzi funtsezko bat: galdekatzea, bilatzea, eraikitzea subjektu postkolonial generodunaren (*gendered postcolonial subject*) lekua. Horren haritik, nahiz eta literatura testuez egiten dituen irakurketek eta interpretazioek sarritan jarraitu teoria feministaren ikuspuntuari, Spivak indibidualismo feministaren baten arriskuak erakusten ahalegindu da, hark errepikatu, bai areagotu ere egiten baitu diskurtso postkoloniala, haren aginduaren eraginei itzuri ezinik. Bere artikulu ezagunenetako batean, «Three Women's Texts and a Critique of Imperialism», Charlotte Brönteren *Jane Eyre* berrirakurtzen du interpretazio berri bat emanez Rochesteren lehen emaztearen, Bertha Mason kreolearen, paperari, kritika feministaren proposamen kanonikoen aurka. Hala, Bertha Masonengan protagonistaren *alter ego* bat ikusi beharrean, Spivakek ohartarazten du pertsonaia hori ezin uler daitekeela XIX. mendeko inperialismoaren diskurtsoaren «indarkeria epistemiko»rik gabe. *Jane Eyre* protagonistaren ustezko askapenak beharrezko kontrapisu gisa darama subjektu «natibo»aren «aberetzea».

Baina heterogeneo ez ezik, Spivaken lanari fragmentario ere esan izan zaio. Alde batetik, hori gertatzen da haren lanak gogor egiten diolako ezein pentsamendu-eskola bereganatzeari, haietako batzuekin zorretan dagoela aitortzen badu ere. Haren filiazio teorikoez esan daitekeen gutxienekoa konplexuak direla da. Lehenengo eta behin aipatu behar dugu berak ere izan zuen garrantzia Estatu Batuetan literatura teoria frantziarra esaten zitzaion hura —batez ere dekonstrukzioa— hedatzen, 1976an ingelesera itzuli baitzuen Jacques Derridaren *De la grammatologie*, testu gakoa filosofo horrek akademia estatubatuarra izan zuen etorrera ulertzeko. Orduz geroztik,

Spivakek dekonstrukzioaren erabilgarritasuna aldarrikatu du eta, nekez politiza daitekeen praktika testual eta testualistatza jotzen dutenek ez bezala, gure irakasleak behin eta berriz esan du estrategia dekonstruktibistek ahalbidetzen dutela diskurtso kolonialaren posibilitateen baldintzen azterketa eta kritika. Horregatik jotzen du dekonstrukziora, edozein narratiba berez kontrakorrontean irakurri beharreko korapilo erretorikoa dela frogatzeko, eta hartara erakutsi egiten du testuak isildu edo ostentzen duena, opakua izan arren garrantzi sakona duena. Haren literatura azterketek, zeinen jokaerek asko zor baitiote psikoanalisiari, baztertuenean, testu bakoitzaren zirrikitu izaeran bilatzen dute haren balio huts-hutsik ideologikoenari eusten diona, han sortu eta ugaltzen baita diskurtso koloniala. Spivakek zentzu politikoa erabiltzen du dekonstrukzioa, eta norabide bikoitzean: alde batetik, aginte kolonialaren estrategiak agerian uzteko, eta bestetik, marratzeko —haren esamoldeari jarraiki— historiari kanpo geratu diren subjektuen siltasunaren ibilbideak. Kontua, beraz, ez da diskurtso koloniala hankaz goratzea, hura sendotzeko bidea besterik ez bailitzateke izango, baizik eta haren angelu itsuak, haren opakutasuna erakustea, negoziazio eta kritika bide berriak ahalbidetzeko. Mendebaldearen premisa kulturalen kritika gogorra egiten duten azterketa postkolonialen alorreko beste zenbait teoriarik ez bezala, Spivakek ez dio uko egiten jarrera anibalente bati, espektroaren bi aldeetan ikusten baitu bere burua: alde kolonialean eta metropoliarenean. Adibidez, aitzakiarik gabeko europazale dauka bere burua, eta diskurtso koloniala iraultzeko negoziazio estrategien aldekoa da.

Halaber, dekonstrukzioari esker ihes egin diezaieke fundamentalismo postkolonial esan geniezaiokeen horren arriskuei. Horregatik, subjektu kolonialaz duen ideiak ez du ekartzen kolonizazio aurreko subjektu puru bat irudikatzea, ustez kutsatu gabeko zibilizazio baten funtsa hezurramituko lukeena. Ezta hurrik eman ere. Spivak kritikoa da politika identitarioekin: ekintza politikorako aukera

«estrategikoa» besterik ez die ematen, eta segituan zalantzan jarri behar direla dio. Horrenbestez, subjektu desorientatuaren nozioa baliatzen du, jatorrizko ideia batera edo are pertenezia ideia batera ezin labur daitekeen subjektuaren nozioa. Subjektua ez da esentzia puru baten emaitza, diskurtsoaren eragina baizik, eta, beraz, betiko etena. «Subjektu-eragina» da, subjektu bat baino gehiago, diskurtso konstelazio heterogeneo baten emaitza. Horren haritik, Spivakek jotzen du Lacanen subjektu ideia, zeinean subjektua adierazle izanean inskribatzearen ondorioa baita, eta Foucaulten kokapen testualen lekua den subjektuaren ideia. Beraz, subjektua ezin harrapa daiteke inoiz modu finko eta mugiezinean, politika identitarioek pentsatuko luketen bezala. Horrexegatik, arbiuati egiten du bereziki edozein «alderantzizko etnozentrismo», «natibismo» edo «kontzientzia txar kolonial»en arrasto, horrek ekarriko lukeelako halako nostalgia bat subjektu kolonial hobe, puruago, benetakoago batena, basati onaren oihartzuna iradokiko lukeena; azken batean, subjektu mendebaldarra baino hobea den subjektua. Identitarioari legokiokeen amore emate bakarrak orientazio estrategikoa izan dezake. Arestian, sinekdoketze terminoa sortu du subjektu batek helburu politiko batekin identifikatzeko forma desberdinen artean hautatzeko duen aukera izendatzeko. Hala, sari bat edo jean batzuk janzteak kutsu politikoa hartzen du, eta horrek ekar lezake, esate baterako, emakume batek alderdi identitarioak aldarrikatu ahal izatea une jakinetan. Spivakek adierazi du ad hoc identifikazioen artean hautatzeko aukera hori klase ertain eta kultuetako emakumeen eskura dagoela bakarrik, eta agindupekotasunetik askatzeko era batek zerikusia izan beharko lukeela *sinekdoketze* hori klase baztertuenei hedatzearekin. Alabaina, «esentzialismo estrategiko» horrek ukitu gabe uzten du subjektuak adierazle identitarioen eta haien eraginpean duen alienazioaren egitura bera. Era berean, sakonago azter liteke zein den iraupen gutxiko identifikazioen existentzia ahalbidetzen duen egungo egoera ideologikoa. Hori posible izateak subjektu mendebaldartuen kasuan, eta ez gizarte tradizionalagoetan bizi direnengan,

adieraziko luke ez dela soilik klase auzi bat, Spivakek dioen bezala, baizik eta subjektuak diskurtsoarekin duen harremanari dagokiola modu askoz zabal eta konplexuago batean.

Agindupekoak hitz egin al dezake?

Spivakek 1988an bota zuen galderak, «Subjektu agindupekoak hitz egin al dezake?» (*Can the Subaltern Speak?*) eragin oso nabarmena izan du azterketa postkolonialen alorrean eta azterketa kulturalen alorrean, oro har, azken bi hamarkadetan. Seguru aski gaur egungo kritikan gehien aipatutako artikuluen artean egongo da. «Agindupeko» terminoa **Antonio Gramsciren** *Oharrak espetxetik* liburutik dator, bertan erabiltzen baitu agindupeko klaseez hitz egiteko, batez ere landetako proletarioez. Ranajit Guharen agindupekoen azterketa taldeak (*Subaltern studies group*) 80ko hamarkadatik aurrera erabili zuen Indiako landa-klaseak izendatzeko. Haren ahalegin epistemologikoaren xedea zen subjektu agindupekoen ahotsa berreskuratzen saiatzea, historiografia hegemonikoak isilduta geratu baitzen, eta historiografia hartan krisialdi bat zabaltzea. Agindupekoa subjektu kultural moduan eratzten zen; baita, ordea, aldaketa eta matxinadaren eragile gisa ere.

Spivaken «Can the Subaltern Speak?» artikulua entzutetsua bete-betean zegoen zuzenduta agindupeko azterketen premisetara, eta bi zailtasun aipatzen zituen. Lehenik eta behin, Spivakek erantzun zuen agindupeko subjektuak ezin dezakeela hitz egin, horretarako bide emango liokeen enuntziazio-lekurik ez duelako. Bigarren, baiezatu zuen emakumeak muturreko leku hori okupatzen duela izaera bikoitza duelako: emakume eta subjektu koloniala. Agindupekoa, hartara, errotiko bestetasunaren irudi moduan eratzten zen, hitz egin ezin dezakeen Beste horrena, ezin mintza daitekeena ez hitzez hitz ezinezkoa zaiolako —argi dago indiar gizarte tradizionalan emakumeek hitz egiten zutela—, baizik eta diskurtsoaren partea ez delako.

Artikuluak eztabaida handia piztu zuen, eta egileak ez zuen baimenik eman bilduma batean argitaratzeko, bere ustez testuaren zenbait irakurketak sortutako nahasteak argitu arte. Kritika nagusia artikuluaren amaierari zuzentzen zitzaion, bertan Spivakek bere argudioa ilustratzen baitu emakume baten —Bhuvaneswari Bhaduri— buruhilketa baten bidez, eta haren ekintza interpretatu eta zentzua ematen dio. Aurpegiratu zioten agindupeko baten adibidetzat elite burges nazionalistaren ordezkari bat aukeratu izana, hartara klase baztertuak bakarrik barne hartuko litzukeen bere beste agindupekotasun definizio batekin kontraesan argian erortzen zelako. Bigarrenez, aurpegiratu zitzaion berak berrezarri izana agindupekoaren kontzientzia, eta Bhuvaneswari Bhaduriren ekintzaren interpretazio bat eskaini izana, haren buruhilketaren zentzua eta egia desestaltzeko gai izango balitz bezala, eta hori kontraesan nabarmenean dago agindupekoak hitz egiten ez duela dioen argudioarekin.

Agindupekoaren Spivaken kontzeptua kritikatu izan zen orobat eragiletzarekin zuen harreman nahasiarengatik. Kritikariak adierazi izan dute terminoak, antza denez, errotiko Beste bat adierazten duela, inola ere eskura egongo ez litzatekeena: halako orri zuri bat, diskurtsoan ezin sar daitekeena. Ildo horretan, agindupekoa kategoria kontzeptual bat izango litzateke, nolabait deitzearren, izendapen subjektibo bat baino areago, defendatzen zaila baita gizarte kolonialetako emakumeak diskurtso patriarkal hegemonikoetatik erabat aparte egon ahal izan direnik. Hartara, agindupekoa isiltasunean harrapatuta geratuko litzateke, erremediorik gabe, bere aukera izaera bezalaxe.

Kritika horiei Spivakek erantzun die agindupekoaren beste nozio bat erabilia, hala nola, Hirugarren Munduko emakumea, ezin mintza daitekeena hori gertatzeko egoera diskurtsiborik ez dagoelako; baina edonola ere, beste modu batera izan dadin

saiatu beharko litzateke. Hori dela eta, bere azken agerraldietan Spivak saiatu da ohartarazten isiltasunaren ibilbide bat marratu behar dela, agindupekoak bere ahotsa entzuna izango dela ahalbidetuko duen enuntziazio-gune bat lor dezan. Hortik dator halaber pedagogian duen interesa, praktika moduan zein politika moduan. Spivakek Indiara eraman du sarritan bere lana, eta oraindik orain landa giroko Txinara, ahots agindupekoak entzunarazteko moduak bilatzeko, eta enuntziatio-gune berriak sortuko dituzten espazioak irekitzen saiatzen da. Haren lana ez dute zailtasunek geldiarazten; aitzitik, barne hartzen dira gaur egungo gizartearen erronkei erantzun berriak bilatzeko orduan.